



Araba: Eulogio Serdán 5
01012 Gasteiz
☎ 945 14 11 04
☎ 945 14 43 02
araba@stee-eilas.org

UPV/EHU Elurreta
Ikasgategia, 204. Bulegoa
01006 Gasteiz
☎ 945 01 33 97
stee-eilasa@ehu.es

Bizkaia: Nikolas Alkorta 3, lonja 13 Zabalburu
48003 Bilbo
☎ 944 10 02 98
☎ 944 10 13 60
bizkaia@stee-eilas.org

UPV-EHU Leioako Campusa
Gizarte Arloko Eraikina
48940 Leioa
☎ 94 601 52 87
☎ 94 601 24 34
lvzeilas@lg.ehu.es

Gipuzkoa: Basotxiki 30-34 atz.
20015 Donostia
☎ 943 46 60 00
☎ 943 45 36 27
gipuzkoa@stee-eilas.org

UPV-EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1
☎ 943 01 84 36
Faxa: 943 01 81 40
sczeilas@sl.ehu.es

Nafarroa: Descalzos 72 behea
31001 Iruñea
☎ 948 21 23 55
☎ 948 22 97 90
nafarroa@stee-eilas.org

www.stee-eilas.org



STOP
WERT

Badator LOMCEa

Irailaren 21ean, PPren gobernuak Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua (LOMCE) onartu zuen, eta abenduaren 3an sakonki aldatu zuen.

Madrilgo Gobernuak, hezkuntza-komunitatea eta zenbait Autonomia Erkidego legearen kontra agertu diren arren, berehala ekin nahi dio hezkuntzako erreformari, aldez aurretik analisi sakon bat egin gabe, eta erreformaren presazko tramitazio-prozesuak aurrera jarraitzen du. Momentuz, ez dira kontuan hartu sindikatuen eta ikastetxe publikoetako guraso-elkarteen Federazioen ekarpenak, baina FAESenak eta Apezpiku Konferentziarenak jaso dira. Azken horrek, derrigorrezko hezkuntzan eta batxilergoan erlijioa berariazko irakasgai gisa eskaintzeko aukera egon dadila lortzeaz gain, erlijioa ikasten ez duten ikasleentzat beste irakasgai bat egon dadila ere lortu du: Balio Sozialak eta Kulturalak Lehen Hezkuntzan eta Balio Etikoak DBHn eta Batxilergoan.

LOMCEa onartuko balitz, espainiar estatuak 50 urtean hezkuntzaren arloan izan duen zazpigarren legea izango litzateke.

2013ko urtarrila.

LOMCEa behar al dugu?

LOMCEaren hitzaurrean adierazten denaren arabera, lege hau beharrezkoa da “emaitzak hobetzea oztopatzen duten” eta “gutxienez sistemaren geldialdia islatzen duten” hiru arrazoiren ondorioz:

- 1. Ikasleen datu pobreak PISA txostenean:** Emaitzak osotasun gisa aurkezten dira, hau da, ez dira lurraldeen artean dauden alde handiak kontuan hartzen. Espainiar Estatua ELGAREN (OCDE) batez bestekoaren azpitik dago, baina EAEk eta Nafarroak batez besteko hori gainditu egiten dute irakurketa-ulermentari eta matematiketako gaitasunei dagokienez.

Argi dago diagnostiko bereizi hori egin gabe eta emaitza hobe horien oinarriko esperientziak eta hezkuntza-praktikak aztertu gabe ezin zaiola arloari arazoa konpontzeko moduan heldu; baina, hala ere, Aurreproiektuan ez da behin ere aipatzen bereizkuntza hori, eta hobekuntza-leerro nagusiak jarrera zentralizatzaile eta berdintzaile batetik planteatzen dira.

- 2. Ikasketak goiz uzten dituzten pertsonen tasa altuak:** Europa 2020 Estrategiak planteatzen dituen helburuetako bat da ikasketak goiz uzten dituzten pertsonen kopurua gutxienez % 10 murriztea. Europako batez bestekoa, EUROSTATen 2011ko datuen arabera, % 13,5koa da; Espainiar Estatukoa, berriz, % 26,5eraino iristen da.

Nahitaezkoa da errealitate hori zuzentzea, baina azken urteotan ikasketak utzi dituzten pertsonen ehunekoa % 5 baino gehiago jaitsi dela nabarmendu behar da, baita emaitzei buruz hitz egitean ikusi dugun bezala erkidegoen artean alde handiak daudela ere, zehazki, EAEn tasa hori % 12,6koa da eta Nafarroan % 16,3koa, baina beste erkidego batzuetan % 34,7eraino iristen da.

- 3. Bikaintasun-maila baxua:** 2009ko PISA txostenaren arabera, EAEn nahiz Nafarroan ikasle “bikainen” ehunekoa ELGAKO batez bestekoaren azpitik dago. Hala ere, txostenean, sistemaren ekitate-maila altua gorai patzen da, indize sozioekonomiko (ISEC) baxuko ikasleek ISEC baliokidea duten beste herrialde batzuetan baino emaitza hobeak lortzen dituztelako.

Argi dago Nafarroan eta EAEn ditugun hezkuntza-sistemak hobetu litezkeela. Aldaketa garrantzitsu horiek egin beharko dira, baina denborari dagokionez iraunkorrak direla bermatuz egin beharko lirakeke. Hori egiteko, nahitaezkoa da oinarriko premisa batzuetatik abiatzea. Batek, kasu bakoitzean gizartearen nahien, interesen eta ezaugarri berezien arabera araudi propioa izateko eskubidea onartu behar da, hezkuntza-sistema propioa baita behar zehatzei eraginkortasunez erantzuteko gai den bakarra. Beste alde batetik, nahitaezkoa da alde zehatzetik hezkuntza-komunitate osoarekin hitz egitea, baita maila sozial eta politikoan ere, adostasun-maila handiak lortzeko. Era berean, beharrezkoa da EAEko eta Nafarroako ikastetxeek (normalean publikoek) ekitatearen arloan, dibertsitatearen tratamenduan, balioetan oinarritutako hezkuntzan, hizkuntzaren normalizazioan... egin duten lanaren balioespina oinarri gisa hartzea.

Adierazle objektibo ugari (baita maila akademikoan ere) LOMCEa okerreko diagnostiko batean oinarritu dela erakusten dute, Nafarroako eta EAEko hezkuntza-sistemen kasuan, gutxienez, lurralde horietan emaitzak ez baitira pentsarazi nahi dituzten bezain txarrak. Zergatik suntsitu zuzenketa batzuk besterik behar ez duen zerbait? Eta, jakina, mila bider gogorarazi behar da hezkuntza-erreforma batek administrazioaren konpromiso ekonomiko sendoa behar duela nahitaez (zuzenean kudeatzen dituen ikastetxeen kasuan, bederen) behar bezain sinesgarria izateko. *Gutxiagorekin gehiago egitea ez da ez onargarria, ez eraginkorra.*

Zer da LOMCEa?

LOMCEa ez da berez Lege berri bat, LOEren zuzenketa moduko bat baizik; hain zuzen ere, LOEaren alderdirik irekienak eta aurrerakoienak ezabatzen ditu eta zama ideologiko handiko beste batzuk sartzen ditu horien ordean, eta argi erakusten du PPK hezkuntzaren inguruan duen kontzeptio merkantilista eta antidemokratikoa. Legea aldatzea erabaki da bide laburragoa delako eta lehenbailehen aplikatu nahi dutelako.

Beste lege batzuetan, hitzaurrean aurkezten diren printzipioak ez dira oso zorrozki jasotzen araudiaren garapenean. Lege honetan, aldiz, Zioen Azalpenean aipatzen diren printzipio ideologiko guzti-guztiak garatu dira.

LOEn kalitatea eta ekitatea antzera garatzen dira, oinarritzko printzipio gisa. Aitzitik, Wert-en Aurreproiektuan, “nolabaiteko kalitate ikuspuntu” bat azpimarratzen da, baina ekitatea desagertu egin da, II. Titulua izen horrekin mantentzen duen arren. Bada, sartzen dituen “ekitatezko” elementuen artean, azpimarratzekoak dira, besteak beste, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeak ituntzen direla eta ez dela jaso hezkuntza ez sexistaren inguruko inolako erreferentziarik; horrela, LOEk defendatzen zuen hezkidetzaren eta balioetan oinarritutako hezkuntzaren aztarna oro errotik desagerrarazten du.

PPren erreformaren helburua alde aurretik dago zehaztuta: “hezkuntzaren kalitatea” hobetzea. Kalitatearen kontzeptua balorazio-irizpide eztabaidaekin bat bezala aurkezten da, eta honela definitzen da: “... hezkuntzaren kalitatea “output”aren arabera (ikasleen emaitzak) neurtu behar da, eta ez “input”aren arabera (inbertsio-mailak, irakasle-kopurua, ikastetxe-kopurua, etab.). Inbertsioaren eta emaitzen artean harremanik ez dagoela iradokitzen duen adierazpen aldebakar horrek hezkuntzako baliabide materialen eta giza baliabideen murrizketa justifikatzeko balio du.

Gainera, estatistiken analisi partziala ikusirik, zalantzak ditugu diagnostikoari buruz, eta, ondorioz, sistemaren akatsak konpontzeko planteatzen diren neurriei buruz.

Erreformak omen dituen helburu nagusiak dira ikasketak eta prestakuntza goiz uzten dituzten pertsonen tasa murriztea, nazioarteko emaitzak hobetzea, ikasle bikainen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako tituludunen tasa konparatiboa hobetzea eta ikasleen laneratzea hobetzea. Horretarako, funtsean, **ondorengo neurri hauek** proposatzen ditu:

- **Ibilbideak malgutzea eta ibilbide bereziak ezartzea:** Ikasleria beren gaitasunen arabera bereiztea eta aukeraketa egiteko unea aurreratzea.

Ez da inolako sistematan frogatu horrek errendimendua hobetzeko balio duenik. Ikasleak goizago kanporatuko dira sistematik eta ez da eskola-porrotaren arazoa konpontzeko, baina estatistikak makilatuta geratuko dira.

Maila nazionaleko ebaluazio-probak ezartzea hezkuntza-etapa bakoitzeko une erabakigarrietan: Ebaluazioa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko zailtasunak aurkitzeko tresna bat bezala ikusi beharrean, etengabeko “errebalidak” ikasleak eta ikastetxeak sailkatzeko eta etiketatzeko mekanismo bihurtzen dira, eta, aldi berean, curriculumak kontrolatzen da. Eskarmentuak erakutsi digu ebaluatzeak ez duela hobetzen ebaluatzen denaren kalitatea. Baina gerta liteke ikaskuntza-prozesua proba horiek gainditzeko trebakuntzara bideratzea.

Eskaintza arrazionalizatzea eta esparru guztietan irakasgai instrumentalak indartzea: Lehenetsuneko irakasgaitzat jotzen dira PISA txostenak ebaluatzen dituen edukiak dituztenak, eta argi dago hori kaltegarria dela ikasleen prestakuntza sozial, historiko edo artistikorako.

Ikastetxearen autonomia areagotzea, beren espezializazioa sustatzea eta kontuak ematea exijitzea. Ustezko “autonomia” hori ikastetxeen funtzionamendu demokratikoa desagerraraztea da, besterik ez. Eskola Kontseilua kontsulta-organo bihurtuko da, eta erabakitzeke ahalmena zuzendaritzaren esku geratuko da guztiz, baina ez soilik gai pedagogikoei dagokienez, “ikastetxeetako langileen eta baliabide ekonomikoen kudeaketari” dagokionez ere bai. Beraz, horrek sistema publikora sartzeko aplikatzen den meritu, berdintasun eta gardentasun sistema hondatzea ekar lezake, eta pribatizazioaren aldeko beste urrats bat da.

Eleaniztasuna babestea eta etapa guztietan gaztelania ikastea derrigorrezkoa izatea: atzerriko hizkuntzan jarioetasuna lortu behar dela planteatzen da, “*laneratzeko gaitasuna eta anbizio profesionalak*” sustatzeko, baina hizkuntza propioaren ikaskuntza baztertu egiten da eta murgiltze linguistikoko programak arrisku handian jartzen dira, eta, gure kasuan, euskararen normalizazioa ere bai.

IKTak “ikasteko tresna osagarri” gisa garatzea: IKTak ulergarritasunera bideratutako tresna gisa ikusten dira, eta kostuak aurrezteko eta ikaskuntza indartzeko baliabide gisa.

Lanbide Heziketa sustatzea: etapa hau “*ekoizpen-sektoreen eskakizunetarako egokitzapen*” bat bezala planteatzen da. Enpresetan prestatzeko prozesua proposatzen da, eta, horrela, eskulan merkea eskaintzen zaie, ikastetxeetako prestakuntzaren kalterako. Halaber, DBHko titulua lortzeko aukera ematen ez duen Oinarriko LH titulu berri bat sortzen da.

Erreformaren oinarriko printzipioak

Merkantilismoa: Lehenengo paragrafoan argi eta garbi ikusten da PPK Hezkuntzari buruz duen kontzeptio merkantilista: lehiakortasun ekonomikoa, kualifikazio altuko lana, hazkuntza ekonomikoa, nazioarteko merkatua. Laburbilduz, merkaturaren beharrei erantzuteko sistema bat, errendimendu ekonomikoa pertsonen prestakuntzari baino lehenetsun handiagoa ematen dion sistema bat. Hau da, hezkuntza-sistema merkatu-ekonomiaren zerbitzura jartzen du.

Indibidualismoa eta klasismoa: prestakuntza norbere sustapenera dago bideratuta. Ikasleen talentua, trebeziak eta itxaropenak desberdinak dira, eta, ondorioz, nahitaezkoa da “ibilbide desberdinak aintzat hartzen dituen hezkuntza-egitura bat garatzea”. Hori dela eta, ibilbide bereziak antolatu behar dira eta ikasleak etengabe egin behar dituzten errealizazio emaitzen arabera banandu behar dira. Azterketa horiek oztopo-lasterketa bat bezala prestatu dira, ustez “garapen pertsonal eta profesionalerako aukerarik onenak” eta “laneratzeko gaitasuna errazten duten ibilbideak” bermatzeko.

Uniformizatzea eta zentralizatzea: azken zirriborroan atzera jo da curriculumean autonomia erkidego bakoitzak ezarri ahal duen ehunekoaren murrizketa, baina beste elementu bateratzaile batzuk mantentzen dira: derrigorrezko etapetako eta batxilergoko irakasgai ardatz batzuen edukiak, eta horiei maila bakoitzean dagokien ordutegi-ehunekoa (% 50); lurralde guztietako ebaluazio-probetarako irizpide komunak eta irakaskuntzan gaztelania zabaltzea eta hizkuntza propioen garrantzia murriztea.

Autoritarismoa: ikastetxeen autonomiaren ustezko garapena zuzendaritzari edo, hobe esanda, zuzendariari ahalmen handiagoa ematera mugatzen da (gainera, maskulinoan bakarrik aipatzen da aurreproiektuan, pertsona bakarreko organo gisa), ahalguztidun bihurtzen baita, eta eskola-komunitateko gainerako kideek erabakiak hartzerakoan duten parte-hartzea mugatu egiten da.

Lehiakortasuna: etengabeko ebaluazioak oztopo-lasterketa bat dira (bereziki baliabide gutxien dituzten ikasleentzat) eta ikastetxeen arteko lehia sustatzen du, emaitzak publikoak izango direnez ikastetxeak rankingetan antolatuko baitira, eta horrek ghettoak eta eliteen ikastetxeak eragingo ditu.

Bereizkuntza: eskatutako profilarekin bat ez datozen ikasleak kanporatzeko bideak sortzen dira, eta, era berean, sexuen arteko bereizkuntza egiten duten ikastetxeak finantzatzen jarraitzea ere ahalbidetzen da.

Sexismoa: testu osoan maskulinoa bakarrik erabili da (*profesores, directores, alumnos* eta *padres* besterik ez dira aipatzen), eta hezkidetzaren, hezkuntza ez sexistaren eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko aipamen oro ezabatu da.

Pribatizazioa: Legeak atea irekitzen dio irakaskuntzaren pribatizazio handiagoari, ituntze-formula zabaltzen baitu (dela itunen iraupena luzatuz, dela administrazioak behar beste plaza publiko eskaintzeko derrigorrezkotasuna desagerraraziz, dela “gizartearen eskaera” delakoa hezkuntza-eskaintza artikulatzeko irizpide bat dela ezarriz).

Doktrinamendua: Herritartasunari buruzko irakasgaia desagerrarazteak, lege hau inposatzen dutenen parametroen arabera, doktrinamendua desagerraraztea dakar. Baina erlijioa ez al da doktrinamendua? Eta zein balio etiko eskainiko dira erlijioaren irakasgai paraleloan? Ideologia erlijiosoa duten pertsonak ez dituzte balio etikoak ikasi behar?...

LOMCEn sartu diren aldaketarik garrantzitsuenak

(2012-12-3an aurkeztutako Aurreproiektua)

Esan dugun bezala, LOMCEa ez da lege berri bat, LOEren bertsio aldatu bat baizik. Ondoren jaso diren taula hauetan, neurri-aldaketarik garrantzitsuenak jaso ditugu:

Atariko titulua

Lege berriko aldaketak

Curriculumua

Art.6 bis Distribución de competencias: Erkidego bakoitzak curriculumaren inguruan zehaztu beharrekoa murriztu zuten, baina azken zirriborroan, abenduokoa, LOEn bezala mentendu dute, hau da, % 55, eta hizkuntza koofiziala badago, % 65 Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Arte, Kirola eta Lanbide ikasketetan.

Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan hau diote: corresponderá a la Administración del Estado determinar los contenidos y el horario mínimo del bloque de asignaturas troncales El bloque de asignaturas troncales supone el 50% del horario en Educación Primaria y Secundaria Obligatoria.

Gure balorazioa

Hortaz, argi geratzen da **curriculumaren izaera zentralizatzailea**. Lurraldeek curriculumua zehazteko duten gaitasunari zuzenean egiten zaio eraso, garrantzi handiena duten arloetan.

Titulua: irakasgaiak eta irakasgaien antolamendua

Irakasgaietan egin diren aldaketa batzuk aztertu ditugu, baina **baliteke legea izapidetu ahala aldaketak izatea**. Garrantzitsuena helburuak, antolamendua, ebaluazioa eta tituluak dira.

1. Lehen Hezkuntza

Lege berriko aldaketak

Organizazioa

Lehen Hezkuntza 6 ikasturtek osatzen dute, arloka antolatuta; arloek izaera globala eta integratzailea izango dute.

Gure balorazioa

Zikloaren planteamendu pedagogiko integratzailea apurtu da eta inguruaren gaineko ezagutza bi irakasgaitan banatzen da: natura zientziak eta gizarte zientziak.

Arloak

LOEtik ondoko puntua desagertu da:

3. En uno de los cursos del tercer ciclo de la etapa, a las áreas incluidas en el apartado anterior se añadirá la de educación para la ciudadanía y los derechos humanos, en la que se prestará especial atención a la igualdad entre hombres y mujeres.

Art. 18 Las áreas se dividen en tres bloques:

- **Troncales:** Ciencias Naturales y Sociales, Lengua Castellana y Literatura, Matemáticas y primera lengua extranjera).
- **Específicas obligatorias:** Educación Física, Religión o Valores Culturales y Sociales.
- **Específicas:** (de las que solo es obligatorio cursar una), Educación artística, Segunda lengua Extranjera.
- **De Especialidad:** Lengua Cooficial en las autonomías en las que exista y otras de oferta libre.

Gure balorazioa

Bada, **berdintasunaren eta giza eskubideen inguruko aipamen oro ezabatu da**, eta hori onartezina da.

Lehen, bigarren eta hirugarren mailako irakasgaiak bereizten ditu. Erljioak (edo irakasgai horren alternatibak) norbere hizkuntzaren ikaskuntzak edo irakasgai artistikoei baino askoz garrantzi handiagoa du, eta azken horiek ez dira bermatzen.

Eskola publikoaren iritzia eta familiek eskatzen dutena kontuan hartu gabe, Apezpiku Konferentziaren presioen ondorioz, Erljioa ikasten ez duten alternatiba sendo eta ebaluagarri bat ikastera behartzen ditu.

Ebaluazioa

20. artikuluan 2. edo 3. maila bukatzean ahalmen komunikatiboan –ama hizkuntzan– eta ahalmen matematikoan banakako ebaluazioa ezarri dute.

Habrará una evaluación final de la Educación Primaria en competencia en la lengua materna, competencia matemática y competencias básicas en ciencias y tecnología y en los objetivos de cada curso de la etapa. Los criterios y características de las pruebas serán comunes para todo el estado y serán aplicadas y calificadas por profesorado externo.

Gure balorazioa

Ebaluazio hauek ikasleek hezkuntza-prozesu osoan gainditu beharko duten etengabeko **oztopo-lasterketaren** hasiera dira.

Probak kanpoko arduradunen esku uzteak irakasleen eginkizuna debaluatzen du, ez baitira ikasleak titulaturako dituen instantzia bakarria izango.

Eduki ebaluagarriak PISA txostenean ebaluatzen diren gaitasun berak dira. Zentzuzkoa da pentsatzea **irakasleak azterketak prestatzeko trebatzaile** huts bihurtu litezkeela, proba horiek prestatu eta gainditzeko.

2. Derrigorrezko Hezkuntza

Lege berriko aldaketak

Organizazioa

Artículo 23 bis. *Ciclos de Educación Secundaria Obligatoria:*

La etapa de Educación Secundaria Obligatoria comprende dos ciclos, el primero de tres años académicos, y el segundo con carácter propedéutico de un año académico, y se organiza en materias.

Artículo 25. *Organización de cuarto curso de Educación Secundaria Obligatoria:*

El cuarto curso de la Educación Secundaria Obligatoria tendrá un carácter propedéutico, y se podrá cursar en la opción de enseñanzas académicas para la iniciación al Bachillerato, o en la opción de enseñanzas aplicadas para la iniciación a la Formación Profesional.

Gure balorazioa

DBHko laugarren mailak irakasgai **komunetako planteamendu orokorra galtzen** du. Bi ibilbide bereizi eta itxi proposatzen dira, Batxilergora edo Lanbide Heziketara bideratzen duten titulazio desberdinekin. **Bereizkuntza goiztiarrerako bide argia da.**

Arloak

DBHko Lehen Zikloa

Art 24: *las áreas se dividen en tres bloques:*

- *Troncales: Biología y Geología en primero, Física y Química en segundo, Geografía e Historia, Lengua Castellana y Literatura, Matemáticas y Primera Lengua Extranjera).*
- *Específicas obligatorias: Educación Física, Religión o Valores Éticos.*
- *Específicas: (de las que se cursarán un mínimo de una y un máximo de tres) Cultura Clásica, Educación Plástica y Visual, Iniciación a la Actividad Emprendedora y Empresarial, Música y Segunda lengua Extranjera.*
- *De Especialidad: Lengua Cooficial en las autonomías en las que exista y otras de oferta libre.*

Gure balorazioa

Lehen Hezkuntzan bezala, lehen, bigarren eta hirugarren mailako irakasgaiak bereizten ditu. Erljioak (edo irakasgai horren alternatibak) norbere Hizkuntzaren ikaskuntzak, Plastikak, Musikak eta Teknologia bako bako askoz garrantzi handiagoa du.

Erljioak eta Balio Etikoak irakasgaiak kontrajartzea harrigarria da, gutxienez. Zer pentsatu behar dugu? Ikasketa erlijiosoak (katolikoa, jakina) egiten ez dituztenek ez dutela horrelako baliorik? Gure ustez, balio etikoak, laikoak eta herritartasunekoak, komunak (Etika eta Herritartasunerako Hezkuntza), nahitaezkoak eta oinarritzkoak dira ikasle guztientzat, beren bizitza pribatuan duten ideologia erlijiosoa zeinahi izanda ere.

3. mailan Matematiketako bi aukera emango dira: bata ikasketa akademikoak egiteko, eta bestea ikasketa aplikatuak egiteko. (24.2 art.)

DBHko Bigarren Zikloa

Bi aukera bereizten dira (25. art.):

- a) *Enseñanzas académicas para la iniciación del Bachillerato.*
- b) *Enseñanzas aplicadas para la iniciación a la Formación Profesional.*

Las asignaturas serán:

- *Troncales (para ambos itinerarios): Geografía e Historia, Lengua Castellana y literatura, Primera Lengua extranjera y Matemáticas (diferenciadas según el itinerario) y dos materias optativas diferentes también según el itinerario.*
- *Específicas obligatorias: Educación Física, Religión o Valores Éticos.*
- *Específicas (se cursarán entre una y tres materias): Artes Escénicas, Cultura Científica, Cultura Clásica, Educación Plástica y Visual, Filosofía, Música, Segunda Lengua Extranjera y Tecnología de la Información y de la Comunicación.*
- *De Especialidad: Lengua Cooficial en las autonomías en las que exista y otras de oferta libre.*

Gure balorazioa

DBHko hirugarren mailan egiten den bereizkuntza horrekin, ikasleak LHra edo Batxilergora bideratzen dira.

Oso atzerapauso larria da, 14 urte izanik LHren eta batxilergoaren artean ikasleak bereizten ziren garaira garamatza eta.

Ikaskuntza hobetzeko programak

Curriculumeko Dibertsifikazio Programei izena ez ezik planteamendua ere aldatu diete. LOEn hirugarren eta laugarren mailan aplikatzen ziren, orain, berriz, bigarren eta hirugarrenean.

Artículo 27. Programas de mejora del aprendizaje y el rendimiento en el primer ciclo.

1.1..1 En este supuesto, el adecuado nivel en la consecución de las competencias básicas del primer ciclo se alcanzará con una metodología específica a través de una organización de contenidos, actividades prácticas y, en su caso, de materias, diferente a la establecida con carácter general, con la finalidad de que los alumnos puedan cursar el cuarto curso por la vía ordinaria y obtengan el título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria.1..1

3. Estos programas irán dirigidos a aquellos alumnos que presenten dificultades generalizadas de aprendizaje no imputables a falta de estudio o esfuerzo.

Gure balorazioa

Orain arte, Curriculumeko Dibertsifikazio programek helburu argi bat zuten: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortzea. Planteamendu hori erabat aldatu da "Ikaskuntza hobetzeko programekin".

3. puntua oso anbigua da; oso zaila da zehaztea zein diren ikasteko zailtasunen arrazoiak, hau da, ahalegin faltaren ala inguruko baldintzen ondoriozkoak diren. Idazketa okerra da erabat, eta ikasleekiko mesfidantza argia islatzen du.

Ebaluazioa

DBHko titulua lortzeko ezinbestez amaierako azterketa gainditu behar da. Ikasleek aukera akademikoaren, aukera aplikatuaren, edo aukera bien azterketa egin dezakete. (29.art.) *los criterios de evaluación y las características de las pruebas serán establecidas para todo el Sistema Educativo Español por el Ministerio que también diseñará las pruebas; estas serán aplicadas y calificadas por profesorado externo.*

Gure balorazioa

Estatu osoan proba hau ezarriz, **irakasleen lana gutxiesten da**, titulua emateko gaitasuna galtzen baitu.

Titulazioa

2. *El título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria permitirá acceder a las siguientes enseñanzas:*

- a) *El título obtenido en la opción de enseñanzas académicas permitirá acceder a Bachillerato*
- b) *El título obtenido en la opción de enseñanzas aplicadas permitirá acceder a Formación Profesional de Grado Medio*
- c) *Los títulos obtenidos tanto en la opción de enseñanzas aplicadas como en la de enseñanzas académicas permitirán acceder al resto de enseñanzas post-obligatorias.*

Gure balorazioa

Bi titulu eta bi bide daude. DBHn matematika bereiziak aukeratzen direnetik, bideak itxi egiten dira, ikasleak 14 urte dituenean hautatzen du Batxilergoa edo Lanbide Heziketa (OHOaren garaian bezala).

3. Batxilergoa

Lege berriko aldaketak

Organizazioa

Batxilergoak honako hauek dira:

LOE: a) Arteak; b) Zientziak eta Teknologia;
c) Giza eta Gizarte Zientziak.

LOMCE: a) Arteak; b) Zientziak; c) Giza Zientziak;
d) Gizarte Zientziak (34. art.)

Gure balorazioa

Batxilergo Teknologikoaren aukera desagertzen da eta Giza eta Gizarte Zientziena banandu egiten da.

Arloak

- Lehen mailan hiru irakasgai ardatz daude batxilergo guztietan: Filosofia, Gaztelania Hizkuntza eta Literatura, eta Atzerriko Lehen Hizkuntza. Mundu Garaikidearen Historia desagertu da Zientzietako batxilergoan eta besteetan hautazkoa da.
- Bigarren mailan hauek dira irakasgai ardatzak batxilergo guztietan: Espainiako Historia, Gaztelania Hizkuntza eta Literatura, eta Atzerriko Lehen Hizkuntza.

Gure balorazioa

Mundu Garaikidearen Historia irakasgai ardatzetatik kentzea larria dela uste dugu, batxilergoko ikasleak mundua ezagutzeko klabe erabakigarririk gabe uzten dituelako.

Lehenengo mailan Mundu Garaikidearen Historia kentzea eta aldi berean Espainiaren Historia irakasgai ardatz gisa mantentzea lege honen iturri ideologikoaren erakusleak dira.

Ebaluazioa

Art 36. Habrá una evaluación final de la etapa cuyos criterios y características serán comunes para todo el Sistema Educativo Español y las pruebas serán aplicadas y calificadas por profesorado externo al centro. Tendrá un peso de un 40% para la obtención de la nota final.

Gure balorazioa

Errebalida gáinditu ezean ezin da Batxilergoko titulua eskuratu, eta titulu hori lortu ezean, ezin da Goi Mailako LHra sartu.

Sarrera Gradu Ikasketa Unibertsitarioetan

Art. 38. Las universidades podrán utilizar alguno o algunos de los siguientes criterios: a) Calificación final de bachillerato b) Modalidad y materias cursadas c) Calificaciones obtenidas en materias concretas d) Formación Académica o profesional complementaria e) Estudios superiores cursados con anterioridad.

Además las universidades pueden establecer otros procedimientos de admisión: evaluaciones específicas...

Gure balorazioa

Batxilergoaren amaierako ebaluazioak aurreko selektibitatearen alde txarrak mantentzen ditu. Unibertsitate bakoitzaren esku geratzen da ikasleak onartzeko irizpideak finkatzea, eta horrek bidegabekeria ekar dezake.

4. Lanbide Heziketa

Lege berriko aldaketak

Atariko Titulua

- Lanbide Heziketako eskaintza modernizatzea eta ekoizpen-sektoreen eskaeretara egokitzea proposatzen dute, baita gazteen langabezia-tasa txikia duten gure inguruko herrialdeetara hurbiltzea ere. Ikaskuntza-prozesuan enpresak sartzea nahi dute, eta formazio duala bultzatu; horrek garrantzi handia du.

Gure balorazioa

LHn LOEa guztiz ezarri baino lehen, “ekoizpen-sistemak eta enpresek” eskatzen dutena betetzen ote den jakin gabe, LH berri bat dugu langabezia ezkutatzeke.

Sarrera

- *Art. 17 b) Desarrollar hábitos de trabajo individual y de equipo, de esfuerzo y de responsabilidad en el estudio, así como actitudes de confianza en sí mismo, sentido crítico, iniciativa personal, curiosidad, interés y creatividad en el aprendizaje, y espíritu emprendedor.*

Gure balorazioa

Lehen Hezkuntzatik Lanbide Heziketaren pisua sumatzen da, “espíritu ekintzailea” agertzen zaigu orain, lehenengo zirriborroan “enpresak ekiteaz” hitz egiten zuten. Zalantzarako zirrikiturik ez.

Organizazioa

- *Art. 24 2: Además, como materia de opción, en función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y de la oferta de los centros docentes, deberán cursar bien Matemáticas orientadas a las enseñanzas académicas, o bien Matemáticas orientadas a las enseñanzas aplicadas.*
- *Art. 25 1.b) opción de enseñanzas aplicadas para la iniciación a la Formación Profesional.*

Gure balorazioa

Hemen dago LHaren hasiera, DBHko hirugarren mailan. “Ondo ez doazen” pertsonentzat (txarrentzat?).

Gure balorazioa

Hemen bigarren bidea bereizten da!

Bide paralelo bat, laneratzea sustatzeko helburu bakarrarekin.

Erdi Mailako Zikloetara igarotzea sustatzen da, Europak exijitzen duen bezaka, tokiz tokiko ekoizpen-sistemaren araberako sistema bat planteatzeko aukera ia eman gabe. Euskal Herriak Erdi Mailako edo Goi Mailako Tituludunak behar ditu?

Oinarrizko Lanbide Heziketa

- *Art. 39.3. La Formación Profesional en el sistema educativo comprende los ciclos de Formación Profesional Básica, de grado medio y de grado superior, con una organización modular, de duración variable, que integre los contenidos teórico-prácticos, tanto de las materias instrumentales como de los módulos profesionales, adecuados a los diversos campos profesionales.*
- *Art. 44.1 Los alumnos que se encuentren en posesión de un título Profesional Básico podrán obtener el título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria por cualquiera de las dos opciones a las que se refiere el artículo 29.1 de esta ley orgánica, por la superación de la evaluación final de Educación Secundaria Obligatoria en relación con las materias del bloque de asignaturas troncales. La calificación final de Educación Secundaria Obligatoria será la nota obtenida en la evaluación final de Educación Secundaria Obligatoria.*
- *Art. 44 Además, las personas mayores de 20 años que tengan acreditadas las unidades de competencia profesional incluidas en un título profesional básico, bien a través de certificados de profesionalidad o por el procedimiento de evaluación y acreditación establecido, recibirán de las Administraciones educativas el título Profesional Básico.*
- *Art. 42.4 Además, las enseñanzas de la Formación Profesional Básica garantizarán al menos la formación necesaria para obtener una cualificación de nivel uno del Catálogo Nacional de las Cualificaciones Profesionales a que se refiere el artículo 7 de la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y de la Formación Profesional.*

Art. 41. 1. El acceso a los ciclos de Formación Profesional Básica requerirá el cumplimiento simultáneo de las siguientes condiciones:

- a) Tener cumplidos quince años, o cumplirlos durante el año natural en curso, y no superar los diecisiete años de edad en el momento del acceso o durante el año natural en curso.*
- b) Haber cursado el primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria sin estar en condiciones de promocionar a cuarto curso, o excepcionalmente haber cursado el segundo curso de la Educación Secundaria Obligatoria.*

Gure balorazioa

Sisteman Oinarrizko LHa sartu da (HKPP ohia), **ez du ziurtatzen DBH titulua lortzea**, horretarako nahitaezkoa baita DBHaren azken Ebaluazioa gaititzea.

Baina ziurtatuta dago kualifikazio profesionaleko 1. maila lortzea, baita Erdi Mailako Ziklora sartzea ere.

Eta, horrela, 1. mailako gaitasunen inguruko estatistikak makilatu nahi dira, Espainiar Estatuko Autonomia Erkidego batzuetan benetako arazo bat baita, baina Euskal Herriko errealitatea al da? Argi dago ezetz.

Gure balorazioa

LH sistemara sartzeko unea 15 urteko adinera aurreratu da. Aparteko aukera izateko behar beste berme jartzen ez bada, ihesbide arriskutsua izan daiteke.

Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketarako Sarrera

- Erdi Mailako LHn sartzeko aukera dago honako baldintzak betez gero (41.2.b art): *Estar en posesión de un título Profesional Básico y haber superado un procedimiento de admisión, de acuerdo con las condiciones que el Gobierno determine reglamentariamente.*
- Goi Mailako LHn sartzeko aukera dago honako baldintzak betez gero (41.3. art): *Ser admitido por el centro de Formación Profesional tras la superación de un procedimiento de admisión, de acuerdo con las condiciones que el Gobierno establezca reglamentariamente, y estar en posesión del título de Bachiller, de un título de Técnico de grado medio, de Técnico Superior o universitario, o de un certificado acreditativo de haber superado todas las materias de Bachillerato.*
- Art. 44. 3 *El título de Técnico Superior permitirá el acceso a los estudios universitarios de grado previa superación de un procedimiento de admisión.*

Gure balorazioa

Erdi Mailako Zikloetara eta Goi Mailakoetara sar daiteke, baita Unibertsitatera ere, sarrera-prozesua gaindituz; ez da zehazten proba orokorrak izango diren ala zentro bakoitzak bereak egingo dituen.

Aukera desberdinen orientazio ona beharrea bezeroak eragin dezake.

Egitura-aldaketak LH I eta LH II zeuden garaiaren antzeko bihurtzen du.

Lanbide Heziketa Duala

- Art 42 Bis – *La FP Dual propiciará la corresponsabilidad de las empresas y de los centros docentes en los procesos formativos del alumnado.*

Gure balorazioa

Modalitate hau mesedegarria da enpresentzat, eskulan merkea eta baliabide materialak eskaintzen baitaizkie; aldi berean, ikastetxeetan irakasle ugari galtzea dakar.

Tituluak

Art. 44.4. Los alumnos que se encuentren en posesión de un título de Técnico de grado medio o superior podrán obtener el título de Bachiller por la superación de la evaluación final de Bachillerato en relación con las materias del bloque de asignaturas troncales. La calificación final de Bachillerato será la nota obtenida en la evaluación final de Bachillerato.

Art 44.6. El Gobierno regulará el régimen de convalidaciones y equivalencias entre los ciclos formativos de grado medio y superior de la Formación Profesional y el resto de enseñanzas y estudios oficiales, ó todos los correspondientes órganos colegiados.

Gure balorazioa

LHtik Batxilergoko tituluak lortu ahalko da azken ebaluazio baten bitartez.

Aurreko zirriborroan Maila Ertaineko Zikloetara zuzenean sartzeko aukera zegoen, baina orain loturak zehazteke geratzen dira, geroagoko arauketa baterako.

IV. Titulua: Ikastetxeak

Lege berriko aldaketak

Itunpeko ikastetxeak

Art. 116. El concierto educativo tendrá una duración mínima de 6 años en Ed Primaria, y de 4 años en el resto de los casos.

Art.109. 2. Las Administraciones educativas programarán la oferta educativa... tomando en consideración la oferta existente de centros públicos y privados concertados y la demanda social. Asimismo las administraciones educativas garantizarán la existencia de plazas suficientes.

Gure balorazioa

Lehen, “gehienez 4” zen. Gure ustez, 6 urte aldi luzeegia da, eta ia ituntze automatikoa dakar.

Oso larria: gizartearen eskaera kontzeptua sartzen da, eta, horrela, sistemaren plangintzari uko egiten zaio; nahikoa izango da ikastetxe batean eskaera egitea ikasgela itunduen kopurua areagotzeko.

Orain arte, administrazioak “nahikoa toki publiko egotea” bermatu behar zuen, baina orain “nahikoa toki” egotea bakarrik bermatu behar du. Administrazioak irakaskuntzako pribatizazio-mailak zabaltzen jarraitzeko aukera du, eta, aldi berean, irakaskuntza publikoarekiko konpromisoa ahultzen da.

V. Titulua: Ikastetxeen parte-hartzea, autonomia eta gobernuak

Lege berriko aldaketak

Kalitatea

Art. 122.bis: Se promoverán las acciones destinadas a fomentar la calidad de los centros educativos, mediante el refuerzo de su autonomía y la potenciación de la función directiva...

Para la realización de las acciones de calidad, el director del centro dispondrá de autonomía para adaptar los recursos humanos a las necesidades derivadas de los mismos” A tal efecto dispondrá de las siguientes facultades:

- a) Establecer requisitos y méritos específicos para los puestos ofertados de personal funcionario docente, así como para la ocupación de puestos de interinidad.*
- b) Rechazar, mediante decisión motivada, la incorporación a puestos en interinidad de personal docente procedente de las listas centralizadas.*
- c) Cuando exista vacante y financiación adecuada y suficiente, proponer de forma motivada el nombramiento de profesores que, habiendo trabajado en los proyectos de calidad, sean necesarios para la continuidad de los mismos.*

Gure balorazioa

Kalitatea aitzakia gisa hartuz, zuzendaritzari ahalmen absolutua ematen zaio eta irakasle funtzionarioen adskripzio-eskubidea zapaltzen da, baita merituen eta gaitasunaren arabera kontratatzeko prozeduren objektibotasuna ere.

Eskola Kontseiluak

Eskola Kontseiluaren zeregin batzuk zuzendariari esleitzen zaizkio. (127.art.):

- a) *Aprobar y evaluar los proyectos y las normas a los que se refiere el capítulo II del título V.*
- b) *Aprobar y evaluar la PGA del centro.*
- e) *Decidir sobre la admisión de alumnos (“erabaki” ordez “informatu” esaten dute).*
- i) *Fijar las directrices para la colaboración, con fines educativos y culturales, con las administraciones locales, con otros centros, entidades y organismos (“erabaki” ordez “informatu” esaten dute).*

Gure balorazioa

Eskola kontseiluaren eginkizunak mugatu egiten dira, eta zuzendaritzaren esku geratzen dira (zuzendaritzari ahalmen absolutua ematen zaio).

Zuzendaria hautatu

Requisitos: *antigüedad de 5 años como funcionario de carrera, certificación acreditativa de superar curso de formación, presentar un proyecto. Podrán pertenecer al centro al que se presenta o no.*

Procedimiento: *la comisión entre el 30 y el 50% representantes del centro, la mitad miembros del claustro (antes eran dos tercios, un tercio profesorado y otro tercio entre los miembros del consejo escolar no pertenecientes al profesorado).*

Gure balorazioa

Negatiboa iruditzen zaigu hezkuntza-komunitateak ikastetxeetako zuzendaritzaren hautaketan **duen parte-hartzea mugatzea eta klaustrotik kanpoko hautagaiak aurkeztu ahal izatea.**

Xedapen gehigarriak

Lege berriko aldaketak

39. *Lengua Castellana y Lengua vehicular de la enseñanza: en las Comunidades autónomas que tenga lengua cooficial:*

- a) *Las administraciones educativas garantizarán en todas las etapas educativas obligatorias que las lenguas cooficiales sean ofrecidas en las distintas asignaturas en proporciones equilibradas en el número de horas lectivas.*
- b) *Podrán otorgar, en función del estado de normalización lingüística en sus territorios, un trato diferenciado a la lengua cooficial respecto del castellano en una **proporción razonable**, sin que en ningún caso pueda suponer de hecho la exclusión del castellano.*
- c) *Los padres o tutores tendrán derecho a escoger la lengua vehicular... Cuando no exista oferta pública o concertada en la lengua vehicular elegida en la localidad de residencia de los alumnos, los padres o tutores podrán optar por escolarizar a sus hijos en centros privados, correspondiendo a la administración educativa sufragar los gastos de escolarización.*

Gure balorazioa

Ez dakigu ministroak zer jotzen duen eskola-orduen kopuru orekatutzat, baina testu honek **murgiltze-ereduak arriskuan jartzen ditu.**

Wert jaunaren nagusikeria ikusita, dekretuka legeza lezake zein izan behar duen hizkuntza koofizialen arteko arrazoizko proportzioak. Hizkuntza propioa duten erkidegoetan murgilketa-programak garatu arren gaztelaniaren ezagutza eta erabilpena ez direla inola ere murrizten bost azola zaio.

